

# ITZAURREA

Joan diran urteotan jakinlariok ez gera lo egon. Ixil ixilik, lan mordoxka polita inguratu dugu andik eta emendik, eta lankideen zirkuloa ere zabaldu da, noski. Gaur ezin diteke jakinlari guztiok mentalidade ta formazio berdiñekoak geranik esan.

Egia aitortu, ez dugu asi infernuko ausporik, baiña alegindu gera purgatoriokoa beiñepein mar-txan jartzen: filosofiaren kondairan jardun ondoren erreboluzioarekin sartu giñan. Ta igaz, Europa-ren batasunarekin. Lan oetako lankideen artean apaiz-gai ta erlijiosoak ezezik izan ditugu erritarrak ere, ta "eskualdunak" ere bai. Jakinlarien alkar izketak zabaltzen eta edertzen doaz, perspetiba berriak ar-gituaz.

Makiña bat kostatako idazlanok argitaratzen abiatu gera orain, Europa-ri buruz egindako saioekin asita. JAKIN-en bizitzan etapa berri ta inportante bat, dudarik gabe. Erreboluzioaz ta filosofiaz egin-dakoekin jarraitzeko asmoarekin asi gera, euskal-

dun irakurleak baiezkoa ematen badigute beintzat. Eta baiezkoa espero dugu.

Urtero urtero segituko dugu gai berriak lantzen, Jainkoaren eta lankideen laguntzarekin.

\* \* \*

Europa. Europa-n bizi gera ta europarrak gera. Baiña ba al da geografiakoaz beste Europa-rik? Ba al da gizon europarra?

Ez dakigu ba den ala ez. Dakiguna, izan nai duela da. Aspaldiko amesa gaurko egunean errealdade biurtzeko zorian jarri baitzaigu, azkeneko gererate ostean. Artatik ari zaizkigu ekonomistak, politikoak, juristak... Europa osoa egapean bildu ditzen laineko zabalerodun erakundeak billatzen.

Gaur Europa ba-da zerbait, ibiltzen asi den umea besterik ez balitz ere. Europa ba-da. Eta mutikotzen, gizontzen joango dela dirudi.

Europa-k eramateko bideak ekonomiazko edo politikazko premiak bakarrik urratzen badizkigu, galduak izango gera. Europa, europarron gartzelea izango da. Ez gure etorkizunaren lantegia.

Guk nai dugun Europa ez da indarrak eragindakoa izango, gizonak gizon libreentzako tajutua baiño. Ez dugu nai Europa aberats izateko, indartsu izateko, USA ta URSS bi andiekin gu ere andi izateko.

Europa, gizonen eta errien eskubide oiñarritako nai dugu. Europarron aberri garbi nai dugu Europa. Kapitalak ez dezala geiago zapaldu gizonaren askatasuna: erri armatuek ez dezatela geiago erri txi-

ki ta pakezaleen askatasuna birrindu. Goseak zer jan izateko, pobreak eskolatzeko, errugabeai justizia egiteko. Orra zertako nai dugun Europa gure aberri biurtu.

Biarko Europa-k askatasun, errespeto ta maitasun iru itz sakratuen errai utsak egiazko mamiz betetzen ez badizkigu, ez dugu nai Europa-rik. Gizonak bakardadean jarraitzekotan, askatasuna gezurrezko promesa zitelen ots ederra baizik ez izatekotan, izpiritua urreari azpiratzekotan, ez dugu nai Europa-rik.

Errespetoa eskatzen dugu, gizon bezala, erri bezala. Maitasunez eta askatasunez gu gerana agertu ahal izateko errespetoa.

Europa ekonomiaren bideetatik abiatu zaigu batasunera jotzen. Orrek ondatu lezake. Ekonomia-ekin bat ideologien ta sentimentuen batasunerakoan ez bada sartzen garaiz. Diruak ilgo ote digu Europa-ko errialdeen izpiritu zaharra? Ala errialdeen balioentzat udaberria dator batasunarekin?

Galdera onen erantzuna, pixka ta puska batean guri dagokigu eratzea. Ta nola euskaldun sailtxo batek ikusi duen Europa, Euskal erriko mendiotatik begira, ona emen ondorengo idazlanetan.

**Joxe Azurmendi.**